

CARME NOGUEIRA

Desacuerdos. Feminismoaren mutazioak izeneko mintegian, Carme Nogueira artistak bere liburuan (doktoretza-tesia) landutako zenbait ideia aurkeztu zuen. Liburuaren izenburua: *La representación como puesta en escena: para una teoría de la mirada* (2001). Azterlan horretan, antzezpenaren testuinguruko harremanak azpimarratu zituen Carme Nogueirak, betiere interpretazioak egiteko tokitzat hartuta, antzezpenean ekintza-ikuslearen arteko harremanen funtsa den aldetik. Ondoren, haren artearen zenbait adibide erakutsi zituen.



Carme Nogueirak bere ikerketa-lanean aipatzen duen antzezpen-mota azaltzeko erabiltzen dituen lanetako bat Jeff Wall-en *Mimic* da. "Gizarteak hiriko testuinguru batean duen parte-hartzea erakusten da antzezlanean, baina haien arteko elkarreraginak irakurketa bakarra egitea galarazten du. Arrazen elkarreragina eta eragin orokorra erakusten zaizkigu; hori dela-eta, elkarreraginaren sorrera ezin izan daiteke neutroa inola ere. Elkarreraginaren antzezpenak testuinguruaren araberako zentzua du; izan ere, testuinguru hori gabe ezinezkoa izango litzateke hura interpretatzea", adierazi zuen.

Carme Nogueirak proposatzen duen testuinguruaren kontzeptua ez da interpretazio-eremu hutsa, esanahi-sortzailea baizik. *Mimic* antzezlanean erakusten den hiriko testuinguruak, haren ustez, jokabide-moduen eta tokien arteko erlazioa dakar. Ikuslea jabetu egiten da antzezlaneko pertsonaiek antzezteko duten moduez, eta testuinguru jakin batzuekin lotzen ditu; horretarako, bizi izandako antzeko egoerei buruzko norberaren oroitzapenak baliatzen ditu. Antzezlanean erakusten zaigun hiriko testuinguruan, hiriko eszenatokiak ezarritako hierarkiak onargarri egiten du nolabait eszenan gertatzen dena. Hala eta guztiz ere, *Mimic* antzezlanean interpretazioaren gainean agerian uzten den funtsezko kontua iritzia emateko ezintasuna da, Carme Nogueiraren aburuz. Ikusleak ezin eman dezake eszenari buruzko iritzirik; testuinguruaz aztertu beharra du. "Gure azterketaren muina ulermena bakarrik ez, interpretazioa ere bada, eta interpretazioan aurkituko dugu testuinguruaren eginkizun bikoitza: interpretazioak ulertzeko eta sortzeko eremua da. Antzezlanaren edo egoeraren interpretazioan alde zuzenetik finkaturiko egia bilatzea ez da egokia, egia testuinguruaren araberakoa baita", adierazi zuen. Testuinguruaren interpretazio-sortzailatzat jotzeak ikuslearen ikuspegi zehatza dakar berekin; hori dela-eta, Carme Nogueirak egiten duen proposamenak lan-azterlan mota bat sortzea dakar, ikuslearekiko erlazio kritikoa planteatzen duena, ikuspegi zurrundetik ateratzen dena eta bestelako interpretazio ezberdinetara irekitzen dena.

Horretarako, ikuslea antzezlanean sartu beharra dago: "Esanahia hertsiki lotuta dago tokiarekin, baina ikuslearen igurikapenen arabera ere izango da", adierazi zuen.

Artistak antzezlanaren gainean proposatzen duen kontzeptuaren xedea antzezlanaren apelazio-egitura beste dinamika batera eramatea da, ikuslea aintzat hartuko duen dinamika batera hain zuzen; ez antzezlanaren beraren tresna gisa, antzezlanaren eragile modura baizik. Antzezlanana, beraz, prozesu aktibotzat jotzen da, kodetzea eskatzen duen jardueratzat, eta haren komunikazio-egitura antzezpenen eraikuntza bihurtzen da; izan ere, antzezpen horren bidez agertzen zaigu antzezlanana, betiere ikuslearen gogoari zuzenduta, zertarako-eta antzezpenari zentzuren bat aurkitzeko. "Gizonen ikuspegiaren arabera kontaketa-logika desegin nahi da, ikuspegi nagusi hori hain nagusi ez izateko, edo are gehiago, hainbat ikuspegi izateko. Ikusleari kontaketa parte hartzeko deia egiten zaio, bere ikuspegi sor dezan", azaldu zuen artistak. Haren ustetan, gai hori azpimarratu behar da; izan ere, feminismoak narratzailearen ikuspegiaren nagusitasunari egindako kritiken oinarria izan zen, eta kritika horiek ikuslearen ikuspegiari bidea egiteko lagungarri izan ziren, ikuslea funtsezkoa den aldetik.

Ildo horretatik doa antzezlanaren espazioa handitzea ere, Carme Nogueirak *gutzizko espazioa* deitzen duena. Antzezlanean erakusten zaigu espazio horren gaineko ikuspegi beraren helburua ezarritako jokabidearen logika aldatzea dela. Antzezpenaren espazioa handitzeari esker, gauzen gaineko ikuspegi errealagoa izan dezakegu, eta erreal izatearen kontzeptuak gauzak antzezteko moduaren arabera dela erakusten du. Antzezlanean ematen zaigun begirada ezin uler daiteke hura osatzen duen espazioa eta begiratzen duena aintzat hartu gabe.

Hiria eta sorturiko beharrak

Esandakoa kontuan izanik, esanahi-sortzaile baten zati gisa irakur daiteke *Mimic*, testuinguruaren beraren gaineko irakurketa modura. "Antzezlanean agertzen zaigun hiriko testuinguru bertan direnak hierarkian sartzen dituen esanahi-sortzailea ere bada. Publikotasuna eta pribatutasuna banatzea iruzur egitea da, zeren hala jokatu publikotasunak pribatutasuna bideratzen baitu", adierazi zuen Carme Nogueirak. Hiriko hazkundearen logika, haren ustez, hiriko beharrezanek bultzaturiko eremu ekonomikoaren ondorioa da.

Horri dagokionez, Carme Nogueirak gogoratu nahi izan zuen ezen, gaur egun gizarte garaikideetan inposaturiko desarrollismoaren eredu alternatiba bakarra dela badirudi ere, ez dela hala. XX. mendearen hasieran bestelako alternatibak agertu ziren, alternatiba errealak, eta gizarte mailan zein ekonomia mailan arrakasta izan zezaketela frogatu zen; alternatiba horiei, ordea, ez zaie jarraipenik eman. Hiru eredu aurkeztu zituen artistak hitzaldian, familia bateko etxebizitzaren alternatiba modura, baina familia bateko etxebizitza egun ulertzen den moduan. Alternatiba baliagarriak eta interesgarriak badira ere, Carme Nogueirak honako hau azpimarratu zuen: alternatiba horietan ez zen zalantzan jartzen etxea eta haurrak zaintzeko ardura emakumeek zutela.

Erakutsi zuen lehen eredu *aterpearen estrategia* izan zen; estrategia horren arabera, emakumea gizonaren eta seme-alaben euskarri emozionala zen, eta gainera etxea zaintzen zuen. Bigarren ereduak etxeko lana faktoria bihurtzea proposatzen zuen; hala, emakumeak produkzio-lanean murgil zitekeen. Azkenik, *auzoen estrategia* aurkeztu zuen, materialismo feministak proposaturikoa. Emakumeei egiten zuten lanagatik ordaintzea proposatzen zuten, horixe baitzen berdintasun ekonomikora iristeko modu bakarra. "Hiru proposamen horiek 60ko eta 70eko hamarkadetan gauzatu ziren oso eraikuntza-eredu ezberdinetan. Hiri inguruko familia bateko etxeen eredu, erabilera kolektiboko apartamenduen eredu eta erkidegoarentzat bideratutako etxebizitza konpartituen eredu", azaldu

zuen Carme Nogueirak. Betiko eraikuntza-eredu nagusiaren alternatiba horiek ez zuten arrakastarik izan, batez ere bi hauek batera gertatu zirelako: etekina bilatzea eta eredu ideologikoa ezarri nahi izatea.

Hala eta guztiz ere, etxebizitza eskuratu beharraren ondorioz, herri arkitekturako bat-bateko hazkunde azpiarkitektonikoa gertatu da, etxebizitzaren eredu nagusiarekin batera garatu dena. Eredu "organikoa" da, hirigintza proiektu gehienek inposaturiko funtzionaltasunarekin batera dagoena. Hazkunde organiko hori berez azpiurbanizazioaren kontrako kritika egiteko oso tresna baliagarria da Carme Nogueiraren aburuz.



Eguneroko espazioak antolatzeko funtzionaltasunaren logikaren oinarria bizi garen toki horiei eginkizun zehatzak ematea da. Espazioak lan egiteko, aisialdirako, egoitzetarako... espazioetan banatzen dira. "Hierarkia eta banaketa dira sistemaren oinarria. Etxebizitza egiteko modua halako moldez izango da non bizitzeko beharrari erantzuna emango baitzaio. Sortu diren behar horiek justifikatzeko modua baino ez da izan joera hori berretsi izanaren ilusioa. Bizigarritasunaren beharrak, egia esan, anarkikoak eta aldakorak dira; etxebizitza-eredu bat orokor bihurtzea askotan ez dator bat egunerokotasunarekin", adierazi zuen Carme Nogueirak.

Sistema ulertzeko heterosexualitateak espazioa banatzeko eran islatzen da. Ordaindutako lana da espazioa egituratzeko faktore nagusia, eta denbora egituratzeko ere bai. Ordaintzen den eta ikus daitekeen lanerako gordetako espazioek prestigioa dute, eta haietan gizonak egoten dira espazioko ordu nagusietan. Hiri espazioetan ez dago ez tokirik ez ordurik ordaindu gabeko lanerako. Emakumeek egiten duten eta ikusten ez den lana aintzat hartzen ez den denbora ikusezina da. Egoera horren alternatibetarako, elkarrekin bizitzeko eredu berriak bilatzeko formulak sortu behar dira, "Mimic-en gertatzen den moduan, kontua ez da jokabide zuzenaren atzetik joatea; hala pentsatzeak banaketaren, heterosexualitatearen, hierarkiaren, patriarkatu modernoaren euskarria den banaketari eusteko eredu bilatzea dakar. Berdintasuneko bizikidetzarako garapen bidea bilatzea da kontua", Carme Nogueiraren aburuz.

Ondoren, Antonio Doñantereekin *Corpos de producción* izeneko erakusketarako egindako bi lan aurkeztu zituen Carme Nogueirak. Proiektu horretan herri espazioez jabetzea proposatzen zen publizitaterakoak diren espazioak baliatuz. Lehenengo lanaren jomuga publizitaterako toki gisa MUPIk duen eginkizuna kritikatzeko izan zen, baita emakumea publizitateko objektutzat hartzea ere.

Aurkezturiko lanean emakume talde batek Carme Nogueiraren tailer batera eginiko bisitaldian emandako iritziak agertzen ziren; emakume guztiak auzo elkarte batekoak ziren. Emakumeak publizitatean duen irudiari eta artistak irudi hori bere lanean kritikatzeko moduari buruz mintzatzen dira bisitaldian.

Erakusketa horretarako eginiko bigarren lanean, berriz, hiria da ardatza. Proiektua osatzen zuten irudiak eraikuntza azpiarkitektonikoei buruzkoak ziren. "MUIren kasuan abstraktu bihurtutako era horretako hainbat eraikuntza ikusten dira; ikusgai izan diren tokiaren kontra agertzeko toki irreal gisa aurkezten dira, hau da, hirian ikusiko dira", azaldu zuen Carme Nogueirak. Lan horien asmo nagusia interpretatuak izateko modurik ez ematea da, zentzu itxirik ez inposatzea, modu ezberdinak askatasunez erabili ahal izatea.

Aterpeak disidentziarako espazio gisa

Azken urteotan, lan handia egin du Carme Nogueirak "aterpeen" inguruan. Haren hitzak erabiliz, eraikuntza hutsal horiek publikotasunari ematen zaion beste esan nahi bat dira, bizigarritasunaren erretorikak dira; izan ere, hiriaren testuinguru orokorrean, tresna politikarako bitartekoak diren aldetik, hazi egiten dira, beren nortasuna duten politika modura ezartzeko. Artista galziarrak egiten duen proposamena herri arkitekturaren garapen anarkikoa indartzea da, alde aurretik ezarritako patroirik gabe eta programarik gabe hazten dena, betiere unean uneko beharriari eta espazioari egokituta. "Herri arkitekturaren eraikuntza horiek agertu, aldatu eta desagertu egiten dira. Beharriari erantzuna emateko modu errealistagoa da; jarduteko moduak inposatzen dituen hiriaren kontra agertzen dira. Espazioak hartzeko politika moduak dira, eta ez erantzun estetikoa edo funtzionala. Gorputzarekin batera gertatzen den hazkundera errebindikatzeko, programaturik gabekoa", azaldu zuen. Testuinguru geografikoa eta soziala txertatzeko bide bat da gorputza. Testuinguruaren proiektzio fisikoa hainbat aldetan eta mailatan ikus daiteke: jantzetan, hartzen diren espazioetan...

Carme Nogueirak erlazio hori ez du muga gisa proposatu, baizik eta espazio berriak sortzeko eta testuinguru berriz interpretatzeko aukera baten modura. Balio-sistematzat bereganatzen diren hainbat ekintzari eta jarrerari esker gertatzen da nagusitasuna; estandar bihurtu eta naturalizat jotzen dira, baina ez dira naturalak, ez datoz bat errealitatearekin, inposatu egiten baitira. Testuinguru txertatuta sortu diren espazioek, artista galziarraren ustetan, herri arkitekturaren antzeko eginkizuna betetzen dute, aterpe fisikoak eta emozionalak dira, barne erresistentziako aterpeak, arauak baztertu beharriari emandako erantzun dira, antolatutako gabeko espazio pertsonala sortzeko, betiere ezarritako ordena ukatuta.

Carme Nogueiraren lanetan, espazioaren horizontaltasuna hausten duten hainbat argazki eta proiektiotan gorpuzten dira ideia horiek. Haren laneko irudiak sarritan hartutako azpitokietan izandako bizipenei buruzkoak dira, eta ezarritako esanahiez gairik beste esanahi batzuk dituzte. Beste esanahi bat ematen zaie kontzeptuei: etxebizitzari, espazioaren jabe izateari, etxeko lanari, emakumearen irudiari... Irudiak kanpotik gauzatzeko modua herri arkitekturaren antzekoa da, "espazioaz modu berean jabetu nahi dute, behin-behingo ezarri eta aldi berean aterpea izan nahi dute ikuslearentzat". Erabilitako baliabideek, hau da, itzalek eta irudi bikoitzek, errealitatearen transformazio zorrotz ikusgaiak ematen dituzte. "Itzalek eta irudi bikoitzek disidentziarako espazioa erakusten dute, pentsatzen dena baina esaten ez dena. Aterpearen benetako esanahia den espazioa; hartu gabeko espazioak, hutsik dauden espazioak eta gizarte-mailan definitu gabekoak. Espazio horiek erresistentziarako espazioak dira, esanahi berriak txertatzeko posibilitatea", esan zuen amaitzeko.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago.

Hemengo testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.

Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

- [gazteleraz](#)
- [ingelesez](#)